

Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza 2 - Tel. 943483750 - Faxa 943483765 - udala\_euskara@donostia.org - www.euskaraz.net - www.donostia.org  
20003 Donostia

## IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTEENTZAKO DIRU LAGUNTZAK 2012 BEHIN-BEHINEKO EBAZPEN PROPOSAMENA

2012ko otsailaren 29an argitaratu zituen Donostiako Udalak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, irabazi asmorik gabeko entitate edo elkarteei laguntza emateko 2012 urteko diru laguntzen deialdia. Deialdi horretan jasotzen dira Euskara Zerbitzuak Donostiako Euskararen Plan Orokorra (2011-2015) garatzeko edota osatzeko 2012. urtean jarduerak eta egitasmoak antolatzen dituzten irabazi asmorik gabeko elkarteentzako diru laguntzak emateko oinarri espezifikoak 2012. urtean jarduerak eta egitasmoak antolatzen "Euskararen Ekimen Estrategikoak. Donostiako Plan Orokorra" garatzeko jarduerak eta egitasmoak antolatzen dituzten elkarte eta entitateei diru laguntzak emateko oinarriak".

Oinarri orokorretako 9. Artikuluan zehaztutakoarekin bat, espedientea eta Balorazio Batzordearen txostena ikusita, organo instrukzio egileari behin-behineko ebazpen proposamena egitea dagokio.

Guztira 31 elkarteren eskaerak jaso dira eta, baldintza guztiak betetzen dituztenez, guztien eskaerak aztertu dira.

Aurkeztutako eskaeren balorazioa egiterakoan, oinarri espezifikoetako 6. artikuluan ezarritako balorazio irizpideak hartu dira kontuan eta irizpide bakoitzerako zehaztutako puntuazioaren arabera baloratu dira. Gutxieneko puntuaziotik (40 puntu) gora lortu duten egitasmoak, beti ere jasotako puntuazioaren arabera, gehienez ere ehuneko jakin batean diruz lagundu dira: 40-55 puntu bitartean jaso duten egitasmoei aurrekontu defizitaren %10eko diru laguntza esleitu zaie; 56-70 puntu bitartekoei defizitaren %20koa; 71-85 puntu bitartekoei defizitaren %30koa; eta, 86-100 puntu bitartekoei defizitaren %40koa.

Aipatu portzentajea aplikatu ondoren, guztizko kopurua 29.809,82 eurokoa izan da eta oinarrietan 29.830 euroko aurrekontua jasotzen da.

Horiek horrela, oinarri orokorretako 9. artikulua 3. puntuaren arabera, Balorazio batzordeak egindako txostenaren eta elkartearen espedienteen argitan, diru laguntza eskatu duten elkarteentzako emakiden ondorengo behin-behineko ebazpen proposamena egiten da.

Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza 2 - Tel. 943483750 -- Faxe 943483765 - udala\_euskara@donostia.org - www.euskaraz.net - www.donostia.org  
20003 Donostia

## BEHIN-BEHINEKO EBAZPEN PROPOSAMENA

1.- Ondoren zerrendatzen diren elkarte eta entitateei diru kopuru hauek ematea:

1.	106,8FM TTAN TTAKUN EUSKAL ELKARTEA .....	1.820 €
2.	ADEVE (ASOCIACIÓN PARA LA DEFENSA DE LAS ESPECIES EN VÍAS DE EXTINCIÓN) .....	155 €
3.	ANTXETA TTAN TTAKUN .....	1.365 €
4.	ARRANO BELTZA EUSKALTOKIA .....	1.314 €
5.	ARRANO ELKARTEA .....	911,21 €
6.	ASOCIACION TALLER DE ARTES ESCENICAS .....	563,71 €
7.	ASTINDARI TOPALEKUA .....	700 €
8.	CICLO INTERNACIONAL DE CINE SUBMARINO .....	767,36 €
9.	ERETI ZUHAIZTIKO GURASOEN ELKARTEA .....	671,90 €
10.	EUSKARAK BATZEN .....	1.960 €
11.	EUSKO IKASKUNTZAREN ASMOZ FUNDAZIOA .....	1.547 €
12.	EZIKO S. COOP. ....	533,46 €
13.	GIMNASIA RITMICA DONOSTI, CLUB .....	375 €
14.	GUKMEDIA KULTUR ELKARTEA .....	715,2 €
15.	HARRESIAK APURTUZ .....	195 €
16.	HELDUAK ASOCIACION .....	450 €
17.	HIK HASI EUSKAL HEZIKETARAKO ELKARTEA .....	4.000 €
18.	IKASBIDE KULTUR ELKARTEA .....	1.170 €
19.	KIRIKINOA ATSEDEN TALDEA .....	1.200 €
20.	LAUAIZETA-SIBILA GURASO ELKARTEA .....	735 €
21.	LOIOLAKO HONTZA KULTUR ELKARTEA .....	555 €
22.	MAMUR AISIALDI TALDEA .....	172,5 €
23.	MEDINA, ASOCIACIÓN CULTURAL DE MUJERES MUSULMANAS .....	1.200 €
24.	PLAZARA GOAZ, INTXAURRONDOKO EUSKARA BATZORDEA .....	900 €
25.	SARROETA AUZO ELKARTEA .....	450 €
26.	SEXUNE ELKARTEA .....	414 €
27.	ZURRIOLA ANTZERKI ESKOLA .....	4.969,47 €

2.- Ondoren zerrendatzen diren elkarteen eskariak baztertzea, ondoko arrazoiengatik:

ASOCIACION ESTUDIANTIL KIBBER

Arrazoa: Deitu dute jarduera ez dutela burutuko esanez.

BAGERA

Arrazoa: Zuzeneko dirulaguntza ematen zaie.

DECEBAL

Arrazoa: Duela bi urte diruz lagundutako proiektu bera da.



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastian



Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza 2 - Tel. 943483750 -- Faxe 943483765 - udala\_euskara@donostia.org - www.euskaraz.net - www.donostia.org  
20003 Donostia

## MUSIKOPORRAK SORMEN ELKARTEA

Arrazoa: Gazteria Sailak lagunduko du aurkeztu duten defizita osoa estaltzeko.

3.- Interesatuei jakinarazpena egitea eta Udaletxeko oholetan eta Interneten argitaratzen denetik alegazioak egiteko 10 eguneko epea ematea.

Donostian, 2012ko abuztuaren 13an

EUSKARA ETA KULTURA DELEGATUA ORDEZKARIA

Sin.: Nerea Txapartegi Madariaga

Nire aurrean,

EUSKARA ZERBITZUAREN BURUA

Sin.: Edurne Otamendi Gamendia